

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Hezkuntzaren antropologia eta historia	141200	2024-2025
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
Gradua Lehen Hezkuntzan	1.a	1.a
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Oinarrizkoa	6	euskara
Irakaslea(k)		
Iñigo Arteatx Uriarte		

Justifikazioa

Hezkuntzaren antropologia eta historia ikasgaia *Gizartea, familia eta eskola* jakintzagaiaren barruan eskaintzen da. Ikasgai honek bide emango dio ikasleari bilakaera soziokulturalari buruzko interpretazio antropologikoak ezagutzeko, eta orobat, hezkuntza-arloan historia hurbilean gertatutako aldaketei buruzkoa. Ikasgaiak xede du hezkuntzaren bilakaeran izandako eredu antropologikoak identifikatu eta hezkuntza prozesuko oinarri antropologikoa nagusiak ulertu, kulturaren eta hezkuntzaren arteko erlazioak antzeman, hezkuntzaren bilakaera ezagutu (bereziki euskal hezkuntza sistemarena), eta gizartearen izaera anizkoitzaren aurrean jarrera irekia sendotu, fenomeno desberdinak ulertuz: migrazioak, generoa, aldaketa soziokulturalak, hizkuntzen bilakaera, familia eta gizatalde eredu ugariak...

Lehen Hezkuntzan Graduatua izango denaren profilarri dagokionez, ikasgai honen bidez lortu nahi duguna da hezkuntzaren errealitatea bere osotasunean aztertuz eta hezkuntzan eragiten duten faktoreek duten pisu antropologikoa ulertuz, lan mundura heltzen denean, ikasleak bere lanbidean izango dituen arazo eta erronken aurrean erantzun zuzen eta egokiak emateko irizpideak izan eta aplikatzeko gai izatea, bizikidetzaren aldeko ekintzaile izan dadin.

Aurrebaldintzak

Ez dago aurrebaldintzarik.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

C.G.5. AHOZKO KOMUNIKAZIOA

Lehenengo menderatze maila: Norberaren ideiak ondo antolatuta eta ulertzeko moduan adieraztea, une egokian mintzatuz eta ekarpen egokiak eginez hala harreman egoeretan nola egoera formalago eta egituratuagoetan.

Ikasketa-emaitzen adierazleak:

- Informazio garrantzitsua transmititzen du.
- Aurkezpenak egituratuta daude, eskatzen diren baldintzak betetzen dituzte, halakorik egonez gero.
- Aurkezpenetan bitarteko lagungarriak erabiltzen ditu.
- Badaki egiten dizkioten galderari erantzuten.

Berariazko gaitasunak

C.E.1.7. Gizartean zuzentasuna, berdintasuna (gizon eta emakumeen artekoa, kultura artekoa...), giza eskubideak eta jasangarritasuna sustatzeko estrategiak diseinatu.

Ikasketa-emaitzen adierazleak:

- Gizartean dauden edo egon daitezkeen bidegabekeriak identifikatu eta konponbiderako jarrera eta interesa agertu.
- Irakaskuntzaren alde hezitzaileaz jabetu historian zehar izandako bilakaera aztertuz gaur egungo irakaslearen rola ulertu eta aurrea begirako erronken aurrean jarrera propioa eraikitzeko.
- Gizartean zuzentasuna eta berdintasuna garatzeko esku-hartzearen beharra onartu.
- Gizartean zuzentasuna eta berdintasuna garatzeko estrategiak eta beraien bideragarritasuna aztertu eta proposamenak egin.
- Ikaskideekin eztabaidatu hezkuntza alorreko estrategiak eta hobetzeko jardunbideak garatzeko.

C.E.2. 8. Gaur egungo gizartearen izaera askotarikoa ulertzeko ekintzak garatu, kulturantzatasuna baloratuz eta bizikidetzak bultzatzeko proposamenak garatu.

C.E.2. 9. Bizi dugun errealitate soziokulturala curriculumean barneratu, errealitatea aztertuz, harengan eragiteko eta dagokion eran eraldatzeko proposamenak egiteko, ikaskuntza gizakoirako egoerak sortuz.

Ikasketa-emaitzen adierazleak:

- Errealitate anizkoitza aztertzeke interesa agertu.
- Aniztasuna baloratu (etnikoa, generoa, erlijioa, e.a.) eta aniztasun kudeaketa ereduak bereizi, norbere ingururako egokiak izan daitezkeen eragileak identifikatu.
- Hezkuntza gizartearen prozesu soziokulturalaren zati moduan identifikatu, eta teoria, erakunde eta ikuspegi pedagogikoak dagozkien testuinguruan kokatu, batzuek besteekin dituzten loturak antzemanez.
- Hezkuntza ereduak aztertu esku-hartze pedagogikorako planifikazioa garatzeko irizpide eta aukera egokiak planteatu.
- Eskolako curriculumaren zehaztapen mailak azaltzeko gaitasuna erakutsi.
- Gure inguruko errealitate soziolinguistikolari buruzko gogoeta egin, hezkuntza-eredu linguistikoak hartuta aintzat.
- Elebitasunari buruzko oinarri psikolinguistikoak azaltzeko gaitasuna erakutsi.
- Gaur egungo hezkuntza sistemaren oinarrian eragin duten /eragiten duten teoria, erakunde, ikuspegi pedagogiko eta mugimenduak identifikatu.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' helburuen presentzia ikasgaietan



5. GJH. Genero berdintasuna.

7. LSH. Erkidego konpromisoa eta ekintza parte-hartzailea

Ikasleen identitate-erakuntzaren ikuspegitik, garrantzitsua da irakaslea kontziente izatea inguruak erakuntza horretan duen indarrak, eta modu kontzientean zein oharkabean transmititzen diren estereotipoak azaleratu eta deuseztatzeko gai izatea. Ikasgai honetan, gizarte-eredu patriarkalak ezartzen

dituen arau eta rolez hausnartuko dugu, eta eskolak eta irakasleak horien transmisioan edo etenean duen erantzukizunaz, pentsamendu feministaren zenbait irakurgaitatik abiatuta

Edukiak

1. Antropologiaren eta Hezkuntzaren oinarri epistemologikoak: bilakaera soziokulturalari zein hezkuntza arlokoari buruzko interpretazio antropologikoak.
2. Gizakiaren izate soziala eta kulturala, hezigarritasuna. Hezkuntza prozesu soziokulturala. Hezkuntza gizakiaren izate kulturalarekin bat. Aniztasun soziala, erlijiosoak, hizkuntzazkoa... Kultur aniztasuna eta kulturartekotasuna.
3. Hezkuntzaren bilakaera: historian zehar izandako hezkuntza eredu antropologiko desberdinak eta hezkuntza eredu eta sistema nagusien ezaugarriak.
4. Esparru pedagogikoa, hezkuntzaren antropologia eta hezkuntza praxiaren hobekuntza.
5. Hezkuntza XXI mendean: ezagutzaren gizartea, mundu globalizatua / joera globalak, euskal gizartearen eta euskal hezkuntza sistemaren berezitasunak (oinarri juridikoak, bilakaera, sareak, ereduak...). Etorkizunerako hezkuntzaren erronkak.

Aipatutako edukiak bi bloketan banatuko ditugu:

1. Hezkuntzaren izaera eta helburua
2. Hezkuntzaren historia Mendebaldean

Ikaskuntza-irakaskuntza estrategiak

Ikasgaien lortu behar diren kompetentziak honako estrategiak erabiliz landuko dira:

- Ikasgaien landu behar diren gaiak **testuinguruan kokatzeko jarduerak**: eztabaidak sortu, abiapuntu hartuta taldekideen esperientziak, testu analisiak edota ikus-entzunezko euskarriak. Errealitate desberdinak ikuspegi kritikoz aztertu.
- **Gogoetarako jarduerak**: gaiak lantzean edo landu ondoren, hausnarketak bideratu galdera, zalantza eta aukerak planteatuz edota erantzunez.

- **Kontzeptualizazioa:** ikasgaien zehar planteatzen diren edukien inguruko ulermen sendoa lortzera eta eduki horien aplikazioan trebatzera bideratutako ariketak.
- **Jarduera praktikoak:** ikasgelan zein ikasgelatik kanpo egingo diren jarduera aplikatuak (tailerrak, ariketen ebazpena, talde-lanak, eztabaidak...), gaien inguruko errealitateak aztertuz eta ondoren ikasgelan edo idatziz azalpenak eginaz.
- **Ebaluazio jarduerak:** ikasgaien inguruan egindako lanari eta planteatutako erronkei buruzko ahozko eta idatzizko aurkezpenak, berariazko gaitasunen zein orokorren lorpena neurtzeko programatutakoak. Idatzizko proba bi ere izango dira.

Talde-lanean, eta informazio-bilaketa autonomoan oinarritzen da ikasgaia. Ikasleek 4-5 kideko lantaldeak osatzen dituzte, eta talde horiek materia osoan zehar mantenduko dira.

Edukiaren atalean aipatutako bloke bakoitza azpi-gaietan banatzen da (ikusitako taula). Gaiak ikasle guztiek landuko dituzte eta horien inguruko eztabaida-saioak egingo dira. Lantalde bakoitzak azpi-gai baten sintesia aurkeztu beharko du 15-20 minutuko aurkezpen batean. Aurkezpenak grabatu egiten dira ikasleek aukera izan dezaten berriz ikusteko, eta aurrera begira hobetzeko. Aurkezpena amaitzean, taldeak eztabaida-saio bat irekiko du prestatutako zenbait eztabaidagairen inguruan.

Nor gara gu? (Antropologia sozialaren zenbait oinarri)

1. Gizarte-egiturak eta harremanak
2. Ohiturak eta errituak
3. Balioak eta sinesmenak
4. Adierazpen kulturalak
5. Munduarekiko harremana
6. Hezkuntza

Kulturaren transmisioa (Hezkuntzaren antropologia eta euskal eskola sistema)

1. Hezkuntzaren helburua
2. Eskola Mendebaldeko historian zehar
3. Hezkuntza elebiduna (St. Lamberteko eskola eta Cummins-en teoriak)
4. Euskal eskola-sistemaren historia
5. Eskola eta kultur transmisioa gaur egun
6. Korrante berritzaileak (konstruktibismoa)

Ebaluazioa

Ebaluazioa lanetan oinarrituko da, banakako nota eta taldekakoa uztartuz. Ikasgaia gainditzeko, aurkeztutako lanek unibertsitate-ekoizpenei dagokien maila erakutsi beharko dute hizkuntza aldetik ere.

Ebaluazioa mailakatua da: aurrera egin ahala, ekoizpenek pisu handiagoa dute kalifikazioan:

atala	pisua azken notan
1. aurkezpena	%35
2. aurkezpena	%50
irakurgaien lanketa (idatzizko proba)	%15
guztira	%100

Horrez gain, ikasle bakoitzaren inplikazioa eta parte-hartzea ere kalifikatuko dira klasean sortzen diren dinamika eta eztabaidetan. Parte-hartze horrek puntu bateko balio erantsia izan dezake, ikasgaia bera gaindituz gero.

Bestalde, ikasgaiaren garapenaren arabera, irakasleak idatzizko proba bat gehitzea erabaki dezake, talde osoari edota ikasgaia gainditzeko baldintzak betetzen ez dituzten ikasleei.

Oharra: ikasgaia gainditzeko, ezinbestekoa izango da banakako atala gaindituta izatea.

AA eta itzultzaile automatikoen erabilera

Adimen artifizialaren eta itzultzaile automatikoen erabilera irakaslearekin adostuko da, eta ezein kasutan ezin izango du ordezkatu ikaslearen sorkuntza-lana. Itzultzaile automatikoa ezin izango da erabili ikasleak gaztelaniaz sortutako materialik euskaratzeko.

AAren eta itzultzaile automatikoaren erabilera sortutako materialean bertan azaldu beharko da.

Dokumentazioa

Ikasgaia aurrera ateratzeko ikasleak eskuratuko duen dokumentazioa ondokoa da:

- Ikasgaiaren programa.
- Ikasleak eginkizun dituen ariketa edo lan bakoitzerako fitxak kasuan kasurako argibideekin: helburuak, gidoia,
- orientabideak, jarraibideak....
- Eduki multzo bakoitzerako oinarritzko dokumentuak edukion lanketa hasterakoan banatuko direnak: testuak, ikus- entzunezkoak, estekak eta bibliografia.
- Lanak egiteko eta aurkezteko arauak eta epeak.

BIBLIOGRAFIA

Hooks, Bell (2018) *Feminismoa denon kontua da*. Txalaparta

(pdf formatuan: <https://katakarak.net/eus/donate/72400>)

Marko, J. Inazio (2011) *Antropologia Hezkuntzan*. Lulu Press. <https://doi.org/10.13140/2.1.2463.1362>

Landu beharreko gainontzeko bibliografia lan-talde bakoitzak garatu beharreko atalarekin egongo da lotuta, eta ikasgaian zehar zehaztuko da.